

OLERKIAK

JOAN GURUTZEKOAREN OLERKIAK: KANTU ESPIRITUALA (B)- CÁNTICO ESPIRITUAL (B)

(itzul.: Luis Baraiazarra)



San Joan Gurutzekoren Kantu Espirituala 25 miniaturarekin batera agertzen dugu; miniatura hauek hainbat aldiz argitaratu izan dira, adibidez, Burgosko Karmeldarren *Orar* aldizkariaren 171. zenbakian, baita Kantu Espiritualaren alemanezko azken argitalpenean ere (2019). San Joan Gurutzekoren heriotzaren laugarren mendeurrenerako (1991) egin zituzten Harissa-ko (Libano) moja karmeldarrek ekialdeko melkita estiloan. Eskertzen diogu A. Salvador Ros-i ere argitalpen hau egin ahal izateko aukera.



Emaztea

1.

**Non ezkutatu zera,
ene maitea, ni utzirik saminez?
Alde orein antzera
niri zauri eginez;
bila irten eta joana zinen ihes.**

Esposa

1.

¿Adónde te escondiste,
Amado, y me dejaste con gemido?
Como el ciervo huiste,
habiéndome herido,
salí tras ti clamando, y eras ido.

2.

**Artzainok, artegitik
jo zenutenok muino ingurura
bazenekusate nik
maiteen dudan hura,
esan eri, penaz, hilez nagola.**

2.

Pastores, los que fuerdes
allá por las majadas al otero,
si por ventura vierdes
aquel que yo más quiero,
decilde que adolezco, peno y muero.

Buscando mis amores
iré por esos montes y riberas...



3.

**Maitearen atzetik
mendi-ibarretan zehar naiz joango;
ez bilduko lorarik,
ez pizti izua izango,
hesi eta mugak ditut igaroko.**

3.

Buscando mis amores,
iré por esos montes y riberas;
ni cogeré las flores,
ni temeré las fieras,
y pasaré los fuertes y fronteras.



Kreaturei galdera

4.

**Oi baso eta itzalpe,
maiteak bere eskuz landaturik!
Oi berdezko magalpe
lorez esmaltaturik!
Esan igaro al den zuetarik.**

Las criaturas

4.

¡Oh bosques y espesuras,
plantadas por la mano del Amado!
¡Oh prado de verduras,
de flores esmaltado!
Decid si por vosotros ha pasado.

Kreatureen erantzuna

5.

**Grazia ugari isuriz
zihoan basartetik traza arinez,
begiak hara itzuliz,
soilik bere antz finez
bere ederrez jantzi zituen, zinez**

Esposa

5.

Mil gracias derramando
pasó por estos sotos con presura,
y, yéndolos mirando,
con sola su figura
vestidos los dejó de hermosura



Emaztea

6. **Oi, nork sendatuko nau ni!
Halako batean, bada, amore eman;
ez bidali neroni
mezulari egin dezan
inor, ez baitakite zer nahi dedan.**

6. ¡Ay, quién podrá sanarme!
Acaba de entregarte ya de vero;
no quieras enviarme
de hoy más ya mensajero,
que no saben decirme lo que quiero.

7. **Bidean hor direnak
zutaz ezin hobeki mintzo dira,
zauria handituz denak
hiltzen utzi nau ia
ahopeko itz gordeen harira.**

7. Y todos cuantos vagan
de ti me van mil gracias refiriendo,
y todos más me llagan,
y déjame muriendo
un no sé qué que quedan balbuciendo.

8. **Baina nola dirauzu,
Bizia!, hor bizia ez daukazula,
hiltzeko azkonak usu
jasotzen dituzula
maiteaz duzun ideia duzula?**

8. Mas ¿cómo perseveras,
¡Oh vida!, no viviendo donde vives,
y haciendo porque mueras
las flechas que recibes
de lo que del Amado en ti concibes?

¿ Por qué, pues has llagado
Apaga mis enojos... Descubre Tu presencia..



9. **Zeuk zauritu baituzu
bihotz hau, nola ez duzu sendatzen?
eta ostu baitidazu,
nola duzu alboratzen
eta ez duzu ostua eskuratzen?**

9. ¿Por qué, pues has llagado
aqueste corazón, no le sanaste?
Y, pues me le has robado,
¿por qué así le dejaste,
y no tomas el robo que robaste?

10. **Itzal nire antsiok,
inork ere ez baititzake ezaba,
eta nire begiok
ikus zaitzatela ja;
zuretzat, haien argia baitzara.**

10. Apaga mis enojos,
pues que ninguno basta a deshacellos,
y véante mis ojos,
pues eres lumbre dellos,
y sólo para ti quiero tenellos.

11. **Ager zaitzez aitzina,
zu ikustez gera nadila hilik;
gogora: maitemina
ez dago sendatzerik,
maitea aurrez ikustez izan ezik.**

11. Descubre tu presencia,
y máteme tu vista y hermosura;
mira que la dolencia
de amor, que no se cura
sino con la presencia y la figura.



12.

**Oi, iturri beirazkoak,
zure zilar-ispilu horietan
begi desirazkoak
sortuz gero bet-betan,
marraztuak jada nire erraietan!**

12.

¡Oh cristalina fuente,
si en esos tus semblantes plateados
formases de repente
los ojos deseados
que tengo en mis entrañas dibujados!



13.

**Aldendu, enetxoa,
hegan bainoa!**

Senarra


**Ene usoa, eman bira,
hor doa orein eria
muinoan ageri da,
zure hegaldira, hats hartzen jarria.**

13.

¡Apártalos, Amado,
que voy de vuelo!

Esposo

Vuélvete, paloma
que el ciervo vulnerado
por el otero asoma
al aire de tu vuelo, y fresco toma.



Emaztea

14.

**Ene Maite, mendiak,
mendiarte bakarti oihantsuak,
uharte txit bitxiak,
ibai durunditsuak,
txistu gozoen haize amultsuak,**

Esposa

14.

Mi Amado las montañas,
los valles solitarios nemorosos,
las ínsulas extrañas,
los ríos sonorosos,
el silbo de los aires amorosos,

15.

**gauaro fin trankila,
goiz-argiaren bitartean dena,
musika-doinu isila,
bakardade ozena,
afari pozten, xoratzen duena.**

15.

la noche sosegada
en par de los levantes del aurora,
la música callada,
la soledad sonora,
la cena que recrea y enamora.



16.

**Azeri-ehizari ekin,
gure mahastia loretan da, bada,
tar-tean arrosekin
sorta egingo jada,
muinoan inor ageri ez bada.**

16.

Cazadnos las raposas,
que está ya florecida nuestra viña,
en tanto que de rosas
hacemos una piña,
y no parezca nadie en la montaña.



17.

**Geldi, ipar hil hori;
zatoz, hego, maitasuna itzartzeko,
har ortuko urrin hori,
bebiltza usain oneko
eta Maitea loretan aseko.**

17.

Detente, cierzo muerto;
ven, austro, que recuerdas los amores
aspira por mi huerto,
y corran sus olores,
y pacerá el Amado entre las flores.



18.

**Oi ninfa Judako!
lore eta arrosa-landaretan
usain on-ona dago:
egon, bada, aldirietan
eta ez ibili gure atarietan.**

18.

¡Oh ninfas de Judea!,
en tanto que en las flores y rosales
el ámbar perfumea,
morá en los arrabales,
y no queráis tocar nuestros umbrales

19.

**Ezkuta, Maite hori,
begiratu aurrez mendi gorenak
eta ez esan inori;
begizta inguru denak,
atzerri-irletatik doanarenak.**

19.

Escóndete, Carillo,
y mira con tu haz a las montañas,
y no quieras decillo;
mas mira las compañas
de la que va por ínsulas extrañas.



Senarra

20.

**Hegalari azkarrak,
lehoi, orein eta orkatz saltariak,
mendi, haran, ibarrak,
ur, haize, sargoriak
eta gaubeilako izualdiak,**

Esposo

20.


A las aves ligeras,
leones, ciervos, gamos saltadores,
montes, valles, riberas,
aguas, aires, ardores
y miedos de las noches veladores:

21.

**nik eskatzen dizuet
lira atsegin eta sirena abestian:
baretu hira horiek,
ez uki harresian,
maiteak lo egin dezan bake eztian.**

21.

por las amenas liras
y canto de serenas os conjuro
que cesen vuestras iras,
y no toquéis al muro,
porque la Esposa duerma más seguro.



22.

**Emaztea sartu da
desirazko baratze eztian barna,
eta hantxe dago jada,
lepoa harengana,
haren beso gozoetan etzana.**

22.

Entrado se ha la Esposa
en el ameno huerto deseado,
y a su sabor reposa,
el cuello reclinado
sobre los dulces brazos del Amado.

Debajo del manzano....



23.

**Sagar azpian zinen
zu nire emaztetzat hautatua,
nire esku-ematea zen;
han zinen sendatua,
non zure ama izan baitzen bortxatua.**

23.

Debajo del manzano,
allí conmigo fuiste desposada
allí te di la mano,
y fuiste reparada
donde tu madre fuera violada.

Nuestro lecho florido....



Emaztea

24.

**Gure ohea lorez,
lehoien koben artean hertsia
dena purpura morez
baketan eraikia
urrezko mila ezkutuz jantzia.**

Esposa

24.

Nuestro lecho florido,
de cuevas de leones enlazado,
en púrpura tendido,
de paz edificado,
de mil escudos de oro coronado.



25.

**Zure oinatzen atzean
neska gazteak bidez bide doaz,
txinpartak ukitzean,
ardo onaren beroaz,
jariatze lurrintsu jainkozkoaz.**

25.

A zaga de tu huella
las jóvenes discurren al camino
al toque de centella,
al adobado vino,
emisiones de bálsamo divino.

Mi alma se ha empleado....



26. **Barne ardandegian
edan nuen neure Maiteagandik,
ja ibar honen erdian,
ez nekien ezer nik;
neukan ganadua ere galdurik.**

26. En la interior bodega
de mi Amado bebí, y cuando salía
por toda aquesta vega,
ya cosa no sabía;
y el ganado perdí que antes seguía.

27. **Han hazi nau bere esnez,
han eman dit bai zientzia gozorik;
nik eman diot zinez
neure burua osorik,
han emaztetako promesa eginik.**

27. Allí me dio su pecho,
allí me enseñó ciencia muy sabrosa,
y yo le di de hecho
a mi, sin dejar cosa;
allí le prometí de ser su Esposa.

28. **Arima hor erabat,
haren zerbitzura dena emanik;
ganadurik ja ez daukat,
ez beste zereginik
jadanik, hura maitatzea baizik.**

28. Mi alma se ha empleado,
y todo mi caudal en su servicio;
ya no guardo ganado,
ni ya tengo otro oficio,
que ya solo en amar es mi ejercicio.

Pues ya si en el ejido.....



29.

**Herri-basoz gaurgero
ez banazate ikus eta aurki,
galdu naizela esango,
maitemindua ibilki,
galdu antz eginez nautela atxiki.**

29.

Pues ya si en el ejido
de hoy más no fuere vista ni hallada,
diréis que me he perdido;
que, andando enamorada,
me hice perdidiza, y fui ganada.



No quieras despreciarme...

IC XC

30. **Lore-esmeraldetatik,
goizalde freskoetan hautatuak;
girlandak haietatik
zuretzat loratuak,
nire ile baten txirikordatuak.**
30. De flores y esmeraldas,
en las frescas mañanas escogidas,
haremos las guirnaldas
en tu amor floridas
y en un cabello mío entretejidas.
31. **Soil-soilik ile hari
nire lepoan begiratzuz hegan,
jarri zinen adi-adi,
eta preso zinen han,
eta eri nire begi batean,**
31. En solo aquel cabello
que en mi cuello volar consideraste,
mirástele en mi cuello,
y en él preso quedaste,
y en uno de mis ojos te llagaste.
32. **Zuk niri behatzean,
begiek nigan irarriz grazia,
ni nauzu bihotzean;
nireek merezia
zuten gurtzea zugan ikusia.**
32. Cuando tú me mirabas,
su gracia en mí tus ojos imprimían:
por eso me adamabas,
y en eso merecían
los míos adorar lo que en ti vían.
33. **Ez ni gutxiets, arren,
beltzaran ikusiz ez ni ezetsi
jar niri so pozarren;
zuk nauzu begietsi
eta grazia eder-ederrez jantzi.**
33. No quieras despreciarme,
que, si color moreno en mí hallaste,
ya bien puedes mirarme
después que me miraste,
que gracia y hermosura en mí dejaste.

La blanca palomica....
En soledad vivía.....



Senarra

34.

**Uso zuritxoa da
kutxara itzuli, ahoan abartxoa
eta usapalak jada
badu hor laguntxoa,
ibar berdetan aurkitutakoa.**

Esposo

34.

La blanca palomica
al arca con el ramo se ha tornado
y ya la tortolica
al socio deseado
en las riberas verdes ha hallado.

35.

**Bizi bakardadean
eta hantxe jarri zuen habia
gidari, bakarrean
beraren maite ezta,
berau ere maitez bertan eria.**

35.

En soledad vivía,
y en soledad ha puesto ya su nido;
y en soledad la guía
a solas su querido
también en soledad de amor herido.



Emaztea

36.

**Goza dezagun, Maite,
ederretsiz zure itxura iaioan
mendi zein mendi arte
ur garden jarioan;
sar gaiten barneragoko giroan.**

Esposa

36.

Gocémonos, Amado,
y vámonos a ver en tu hermosura
al monte y al collado,
do mana el agua pura;
entremos más adentro en la espesura.

37.

**Eta gero joango
gara goi-goiko haitz-kobetara;
gorderik daude ondo;
eta han sartuko gara,
mingrana-ardoa edango gogara.**

37.

Y luego a las subidas
cavernas de la piedra nos iremos,
que están bien escondidas,
y allí nos entraremos,
y el mosto de granadas gustaremos.



38.

**Zuk erakutsirik han
nire bihotzak desio zuena,
gero emango zenidan,
ene bizi zarena,
lehengo egunean eman zenidana:**

38.

Allí me mostrarías
aquello que mi alma pretendía,
y luego me darías
allí tú, vida mía,
aquello que me diste el otro día:



39.

**haizearen arnasa,
urretxindorraren kanta ezta,
basarte eta haren traza,
gauaro amestia
min gabe erretzen duen gar-izpia.**

39.

El aspirar del aire,
el canto de la dulce filomena,
el soto y su donaire,
en la noche serena,
con llama que consume y no da pena



40.

**Inor ez zen begira,
Aminadab ere ez zen ageria,
hesiak bakez dira
eta zalditeria
uren aurrean beherantz da abia.**

40.

Que nadie lo miraba,
Aminadab tampoco parecía,
y el cerco sosegaba,
y la caballería
a vista de las aguas descendía.

